

Antzezte-adierazpen Garaikideen Tailerra

Kurtsoa: 2

Kreditu kop.: 4

Deskribatzaileak:

- Proposamen kontzeptual eta eszeniko esanguratsuenen azterketa, XX. mendeko azken herenetik gaurdaino.
- Egile eta lan garrantzitsuenak.
- Indarraldia eta hizkuntza eszenikoak berritzean duen eragina baloratzea.
- Korrante horien ekarpen tekniko eta estetikoaren ezagutza.
- Aktorearen adierazpen-baliabideak eszena eta pertsonaia garaikidera egokitzea.
- Aktore-lanaren, eta irudiak proiektatzearen eta beste adierazpen-baliabide ez konbentzional batzuen interakzioa.
- Performance-a, sorkuntzan oinarritutako antzerkia eta hizkuntza eszeniko berri garaikideak.
- Ikerketa-laneko proposamen praktikoa.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

- Hizkuntza eszeniko garaikidearen printzipioak eta sorkuntza-prozesuak ezagutu eta aztertzea, ikuspegi metodologiko desberdinetatik abiatuta: semiotikoak, estetikoak, soziologikoak edo antropologikoak.
- Sorkuntza garaikideko lan-metodoak ezagutu eta probatzea, sorkuntza kolektibo metodoei arreta berezia eskainiz.
- Ikerketa-gaitasunak garatzea, ikuskizun-artei eta prozesu sortzaileei dagokienez.
- Euskal Herriko abangoardiako adierazpenak identifikatu eta beste leku batzuetako egile eta sortzaileen dramaturgiekin erlazionatzea.
- Lan garaikideko tailer praktikoa.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

- Proposamen eszeniko eta narratibo garaikideen azterketari dagokionez, ideiak eta argudioak era arrazoituan eta kritikoan garatzea.
- Informazio garrantzitsua bildu, aztertu, laburbildu eta egoki kudeatzea.

- Dramaturgia garaikideen ezaugarriak ezagutzea, horien sortzaile nagusiak eta ekarpen estetiko, etiko eta humanistikoak.
- Eszena garaikidearen estetika eta narratiba beste arte-hizkuntza batzuekin erlazionatzea.
- Ikasgai desberdinetan landutako ezagutzak eta teknikak txertatu eta antzerki garaikideko lan dramatikoaren eszenaratzean erabiltzea.
- Proposamen dramatikoak egitea, antzezpenarako bereziki ez sortutako testu-, ikus-material, edo beste edozein izaeratako materialetatik abiatuta.
- Ezagutu eta interpretarenean sorkuntza-lanari aplikatzea sorkuntza-antzerkian eta beste adierazpen performatibo batzuetan maiz erabiltzen diren teknologien adierazpen-aukerak (soinua, argia, ikus-entzunezkoak).
- Talde batean integratu eta ekarpen esanguratsuak egitea lan garaikide baten eszenaratze-prozesu konplexu bat egitera bideratutako lan kolektibo batean.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplikatu dakizkiokeen kompetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta gai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoia, kontzeptu teorikoak asimilatze eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.